

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Alkerdi (Urdazubi) harrobia ustiatzeko baldintzak berrikusiko ditu

Etenda daude harrobiko leherketak aldi baterako, ondare arkeologikoa mantenduko dela bermatzen duen proiektu berri bat egin arte

Jueves, 14 de agosto de 2014

Nafarroako Gobernuak gaur jakinarazi dio Urdazubiko Udaleri Alkerdi harrobiko ustiatze-baldintzak berrikusiko dituela. Mármoles del Baztan S.A. enpresa ari da ustiaketa egiten.

Zehazki, Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak harrobia zulatzeko eta

lehertzeko lanak aldi batez etetea erabaki du, inguruko ondare arkeologikoa mantenduko dela bermatzen duen beste proiektu batekin jarrai daitekeen aztertzeko. Ondare horren parte dira Berroberria eta Alkerdiko leizeak, interes kultureleko ondasun gisa aitortutakoak.

Iragan uztailaren 15ean, Alkerdi harrobiaren zati bat lehertu zuen. Zaratarengatik, ikara piztu zen Urdazubi herrian. Udalak sortutako kezkaren berri eman ondoren Nafarroako Udaleri, ikuskatzera joan ziren Industria, Energia eta Berrikuntzaren; Ingurumenaren, eta Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendaritza nagusietako teknikari eta arduradunak.

Egoeraren aurrean, ostegun honetan egindako bilera batean, Nafarroako Gobernuak Udaleri jakinarazi dio harrobiko leherketak aldi batez eten egingo direla, ondasun arkeologikoak mantendu eta kezkatzeko moduko egoerak saihestuko direla bermatzen duen proiektu berri bat egin arte.

Mármoles del Baztan S.A. enpresari ere eman zaio erabakiaren berri. Harrobian beste mota bateko lanak egiten jarraitu du bien bitartean.



Urdazubiren airetiko ikuspegia